

1. Balorezko proposamena

Gure proiektua barruan argiak dituen poltsa bat egitea da. Proiektu honen balioa kualitatiboa da.

a) Nobedadea: Gure produktua berria da, ez dago asmatua. Poltsen merkatuaren barruan egongo litzake baina besteengandik desberdina izango litzake, orain arte merkatuan ez dagoelako argiak dituen poltsarik. Argi hoi funtzioa barruan dauden gauzak aurkitzea erraztea da.

b) Prestazioak: Poltsen erabilera hobetuko luke, errazago egingo lukeelako bertako gauzak aurkitzea.

c) Pertsonalizazioa:

Poltsa honek eskaintzen duen berrikuntza barruan argi batzuk edukitzea da. Argi horiek sensore baten bidez piztuko ziren, kalean argi gutxi dagoenean. Honek poltsaren barruko gauzak errazago aurkitzeko balio du. Gainera, diseinu orijinal bat edukiko lukete gure poltsek eta prezio arrazional batean salduko lirateke, kontuan hartuta argiak edukitzea duen kostua.

d) Lana erraztea: Gure produktuak eskaintzen duen erraztasuna poltsaren barruan gauzak aurkitzea da.

e) Diseinua: Poltsak modaren industriaren barnean daude eta gure produktuek gaur egungo moda jarraitzen duten diseinuak izango lituzkete. Horretarako, MISAKO enpresari erosiko dizkiogu poltsak. Enpresa horrek jada moda jarraitzen du bere diseinuetan eta asko eguneratzen dituzte. Abantaila hori erabiliko genuke.

f) Marka/Statusa: Gure produktua status normal baten barruan kokatuko genuke, hau da, ekonomia desberdineko jendeak eskuratu ahal izateko. Beraz, gure marka propioa sortuko genuke, beste marka batzuen kolaborazioarekin baina jende guztiak eskuratu ahal izateko modukoa.

g) Prezioa: Gure produktuak gutxi gora behera 59'99 € balioko luke. Diseinu desberdinak edukiko genituzke baina prezioak ez luke asko bariatuko. Argien kostua eta MISAKOri poltsak erostearen kostua kontuan hartuta prezioa 60 € ingurukoa izango litzateke.

h) Arriskua murriztea: Gure produktuaren kasuan ez dago arriskurik produktua erosterakoan, beraz, ez du garantia edo bestelakorik behar kotxe bat erosterakoan bezala. Gainera, gure produktuaren prezioa ez da oso altua.

i) Eskuragarritasuna: Gure produktua eskuragarritasun desberdina duen jendeari zuzenduta dago ez duelako prezio oso altua, ia guztien eskura egongo litzateke.

j)Erabilerreztasuna: Gure produktuak ez luke erabiltzeko zailtasunik izango. Ohiko poltsa baten funtzioa beteko luke, desberdintasun bakarra argiak izango lirateke, baina bakarrik piztuko lirateke, erosleak ez luke argiak funtzionatzen jartzen ikasi beharko ez ezer. Sensoreak funtzionatuko ez baluke, poltsaren barruan egongo zen botoi baten bidez, poltsaren argiak piztu eta itzali ahalkolitzuzke erosleak

GALDERAK

a)Ze behar edo arazo konpontzen dezue? Beste edozein poltsa bezala objektuak gordetzea eta eramatea ahalbidetzen dute gure poltsek, baina barruan gauzak aurkitzea errazten dugu argien bitartez.

b)Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa ordaintzeko prest? Bereizten gaituena argiak dira. Gainera, diseinu eksklusiboak eskainiko geniezke gure bezeroei..

